

ADIERAZPEN INSTITUZIONALA DECLARACIÓN INSTITUCIONAL



2022KO EUSKARAREN NAZIOARTEKO EGUNERAKO ADIERAZPEN INSTITUZIONALA

DECLARACIÓN INSTITUCIONAL PARA EL DÍA INTERNACIONAL DEL EUSKERA DEL AÑO 2022

Gipuzkoako Batzar Nagusiek Euskararen Nazioarteko Egunean adierazten dute, aurten ere erakunde honen euskararen aldeko atxikimendua eta konpromisoa. 2022ko Euskararen Nazioarteko Egunaren ataria, opari eder batekin datorkigu, "Irulegiko eskua"ren aurkikuntzarekin. Eta hori ez ezik, aurten EUSKARALDIaren edizioarekin bat egiten du; horregatik *ahobizi* eta *belarriprest* izateko konpromiso bikoitza hartzen dugu.

Ongi asko dakigu euskal herritarrok eta euskal hiztunok gaur ospatzen duguna ez dela egunaren mugetara errenditzen. Euskal hiztunak naturaltasun osoz gauzatu behar du euskaraz bizitzeko aukera, eguneroko harremanetan eremu formaletik lan mundu, aisialdi, kultur edo kirol eremuetara igarotzean. Eta hor aurrera egiteko, hiztunen konpromisoa ez ezik ezinbestekoa izango da instituziook egin behar dugun ahalegina: bitartekoak jarritz eta eredugarritasuna erakutsiz.

"Hitzez Ekiteko Garaia", EUSKARALDIaren aurtengo leloarekin bat eginez, gipuzkoar guztiok, bere instituzioa zein bestelako erakunde, herri mugimendu edo hiritar soila

Las Juntas Generales de Gipuzkoa muestran su adhesión y compromiso a favor del euskera en el Día Internacional del Euskera. La presente edición nos llega acompañada de una gran noticia, el descubrimiento de la "Mano de Irulegi". Y no sólo eso, sino que este año se suma a la celebración, el EUSKARALDIA por lo que adoptamos el doble compromiso de ser *ahobizi* y *belarriprest*.

Los vascoparlantes y la ciudadanía vasca en general sabemos perfectamente que lo que hoy celebramos no se circunscribe a los límites de un solo día. Las personas vascoparlantes han de ejercer con toda naturalidad la posibilidad de vivir en euskera, al pasar de los ámbitos formales al mundo del ocio, cultural o deportivo. Y para avanzar en este aspecto, más allá del compromiso de los hablantes, será imprescindible el esfuerzo y compromiso de las instituciones: poniendo a su servicio los medios necesarios y mostrando su ejemplaridad.

Coincidiendo con el lema de EUSKARALDIA, *"Hitzez Ekiteko Garaia"*, la ciudadanía guipuzcoana en su conjunto, ya sea en su institución o cualquier otra entidad, movimiento

ADIERAZPEN INSTITUZIONALA DECLARACIÓN INSTITUCIONAL



izan, euskara gure ahotan eta belarrietan aktiba dadin eragin behar dugu.

Ekiteko garaia da, bai; guztion artean, Gipuzkoa euskal lurraldeetatik euskaldunena izatea lortu dugu, baina ez da nahikoa, ezin dugu konplazentzian erori eta urratsak ematen jarraitu behar dugu. Kezkagarria da azken ikerketek erakusten duten euskararen erabileraren beherakada, batez ere herri euskaldunenetan. Horrek erakusten digu euskarak guztion parte hartze aktiboa behar duela.

Pandemian are argiago ikusi dugu zenbateraino diren ezinbestekoak komunikazio ildo eta sareak, zenbaterainoko balioa eranstean dion komunikazioak gure zeinahi jarduerari; orain, jakiteaz gain, sentitu ere egiten dugu errealitate hori: sakon-sakoneraino barneratu dugu komunikazioaren, harremanaren funtsezkotasuna. Hori da aro berriaren ezaugarri nagusietariko bat. Eta hori bera du euskarak erronka: komunikazio eta jarduera eremu berrietan ere, naturaltasun osoz, dagokion tokia hartzea. Eraginkorki. Tinko.

Eredugarria da komunikazio eta informazio teknologien sareetan egin den eta egiten ari den lana, besteak beste erabilerarekin zuzen-zuzenean loturiko presentzia delako euskarari benetako balio erantsia dakarkiona.

popular o ciudadano, debemos activar el uso del euskera en nuestra comunicación oral cotidiana.

Es momento de actuar, sí; hemos conseguido entre todas y todos que Gipuzkoa sea el territorio más euskaldun, pero esto no es suficiente, no podemos caer en la complacencia y debemos seguir dando pasos en esa dirección. El descenso en el uso del euskera que muestran los últimos estudios es preocupante, especialmente en los pueblos más euskaldunes. Esto nos muestra que el euskera necesita de la participación activa de todos y todas.

Hemos podido ver durante la pandemia con mayor claridad, si cabe, lo indispensables que son las líneas y redes de comunicación, el valor que aporta la comunicación a cualquier actividad, y ahora, además de conocerlo, sentimos esta realidad: hemos interiorizado hasta lo más hondo el carácter esencial de la comunicación, de las relaciones. Esa es una de las principales características de la nueva etapa. Y el reto que tiene el euskera es el de ocupar con toda naturalidad el lugar que le corresponde en los nuevos ámbitos de comunicación y actividad. De manera eficaz. Con firmeza.

Es ejemplar el trabajo que se ha realizado y se está realizando en las redes de tecnologías de la comunicación e información, entre otros motivos, porque es la presencia del euskera directamente relacionada con su uso la que le

ADIERAZPEN INSTITUZIONALA DECLARACIÓN INSTITUCIONAL



Komunikazio hedabideetan, euskarri anitzetakoak, euskararen presentzia indartzea eta gipuzkoar jendartearen hizkuntz errealitatera egokitzea, euskara komunikazio hizkuntza tresna indartsua izan dadin eraginkortasunez egin beharreko langintza dugu. Eta nabarmena da erakunde publiko eta pribatuen ekimen eta lankidetzak bateratuz jarduten badugu, beharrezko baliabideak eskura jarritz, erronkaren handiak ez gaituela beldurtu behar. Gai izan behar dugu hezkuntzan, hedabideetan, osasungintzan, eremu sozioekonomikoan, administrazioan eta beste hainbat eta hainbatetan euskara biziberritzeko.

aporta un verdadero valor añadido. Reforzar la presencia del euskera en los medios de comunicación de múltiples soportes y adecuarla a la realidad lingüística de la sociedad guipuzcoana es una labor necesaria que debemos realizar de manera eficaz, para que el euskera sea realmente una potente herramienta como lengua de comunicación. Y resulta evidente que, si actuamos aunando iniciativas y colaboraciones entre instituciones públicas y privadas, dotándolos con los recursos necesarios, no nos debe asustar la magnitud del reto. Debemos ser capaces de revitalizar el euskera en la educación, en los medios de comunicación, en la sanidad, en el ámbito socioeconómico, en la administración, etc.

Testuinguru berriaren hasiera honek beste ikuspegi bat eranstea eskatzen digu: hizkuntzaren erabilera formalekin batera, eremu ez formalekoa landu beharra dago, behar besteko lehentasunez. Euskal hiztunak naturaltasun osoz gauzatu behar du euskaraz bizitzeko aukera, eguneroko harremanetan eremu formaletik lan mundu, aisialdi, kultur edo kirol eremuetara igarotzean, hori bera baita, hain zuzen ere, euskaraz bizitzearen esanahietako bat.

Este nuevo contexto nos exige incorporar una nueva perspectiva: es necesario trabajar, además de en los usos formales del lenguaje, en los ámbitos informales, otorgándole la prioridad que precisa. El vasco parlante debe pasar de manera natural de la posibilidad de vivir en euskera a un nivel formal a hacerlo en el amplio abanico de ámbitos laborales, de ocio, culturales o deportivos. Ese es precisamente uno de los significados de vivir en euskera.

Horretan garrantzia hartzen dute egun euskararen arnas-guneak diren herri eta eskualdeak. Horiek indartzea eta zaintzea ezinbestekoa da. Eta horien bidetik, arnas-

En todo ello cobran una especial relevancia las localidades y comarcas que actualmente son espacios vitales del euskera. Es imprescindible su fortalecimiento y protección. Y, siguiendo esa

ADIERAZPEN INSTITUZIONALA DECLARACIÓN INSTITUCIONAL



gune berriak eraikitzen joatea dugu helburu, Gipuzkoar jendartea, alde batetik bestera, euskararen arnas-gunea izan dadin.

senda, el objetivo consiste en ir construyendo nuevos espacios vitales para el euskera, con el objetivo de que el conjunto de la sociedad guipuzcoana se convierta en uno de ellos.

Gazte-jendea ez ezik, sasoikoak ere euskaraz aritzeko arrastoan sartu behar dugu gero eta gehiago. Erabilera dugu erronka nagusia eta horretarako, hiztun elkarte zabal, sendo, trinko eta konprometitu bat izatea ezinbestekoa da. Hezkuntzatik lan esparrura, kulturatik kirolera edota ekonomia eta sozial eremutik aisialdira.

Debemos ir incorporando en la senda del euskera cada vez a más personas, no solo jóvenes, sino también adultas. Nuestro principal reto radica en el uso y, para ello, resulta totalmente necesario contar con una unión de hablantes amplia, sólida, compacta y comprometida. Desde la educación al ámbito laboral, desde la cultura al deporte o desde el ámbito económico y social al ocio.

Honekin batera, gure lurraldera, bizi modu hobeago baten bila, heltzen diren pertsonak, batez ere gazteak, euskara euren bizitzetan txertatzea bazter ezineko konpromisoa dugu; gipuzkoar berriek euskara ere arnas izan dezaten.

Junto a ello, tenemos el ineludible compromiso de incorporar el euskera en la vida de las personas, especialmente jóvenes, que llegan a nuestro territorio en busca de una vida mejor.

Euskarak bide luzea egina du, Nafarroako Irulegiko indusketetan deskubritutako eskuaren izkribuak adierazten duen moduan. "Irulegiko eskua" komunitate batetik datorkigun ahots eta arnasa dugu. Herri baten nortasun ahotsa. Argi dugu herri baten nortasuna bere kulturen datzala, eta hizkuntza, ekosistema kultural horren funtsezko osagaia dela. Beraz, *SORIONEKU* izateko arrazoia badugu; eta Historiak aurrera egin dezan,

El euskera, tal y como indican los escritos de la mano descubiertos en las excavaciones de Irulegi en Nafarroa, tiene una larga historia. La mano de Irulegi es la voz y el aliento que nos llega de una comunidad. La voz de la identidad de un pueblo. Tenemos claro que la identidad de un pueblo reside en su cultura y que la lengua es un componente fundamental de ese ecosistema cultural. Por ello, tenemos motivo para ser *SORIONEKU*; *EUSKARALDIA* nos brinda

ADIERAZPEN INSTITUZIONALA DECLARACIÓN INSTITUCIONAL



EUSKARALDIAk aukera ederra ematen digu harremanei euskaraz ekiteko esperientzia, urte osora zabal dezagun. Euskararen Eguna horren ospakizuna da. Gure herria erabakia hartuta dago aspalditik gure hizkuntzaren alde egiteko. Jarrai dezagun aurrera.

una oportunidad para que esa historia continúe desarrollándose, una oportunidad para relacionarlos en euskera y para ampliar esa relación a lo largo del año. El Día del Euskera es una celebración de ello. Hace tiempo que nuestro pueblo adoptó la determinación de apostar por nuestra lengua. Sigamos avanzando.

Donostian, 2022ko azaroaren 29an

Bozeramailearen sinadura/Firma
portavoz Maria Eugenia
Arrizabalaga Olaizola
EA-NV Taldea

Bozeramailearen sinadura/Firma
portavoz Juan Karlos
Izagirre Hortelano
EH Bildu Taldea

Bozeramailearen sinadura/Firma
portavoz Susana García
Chueca
ES-SV Taldea

Bozeramailearen sinadura/Firma
portavoz Joanes Fiel
Elkarrekin Gipuzkoa Taldea

Bozeramailearen sinadura/Firma
portavoz Juan Carlos Cano
Talde Misto Popularra